



SAISON CULTURELLE

Kultur denboraldia

Théâtre | Musika | Cirque | Dantza

Ikus arteen inguruko formakuntza (FR)

Honako ikuskizun hauekin loturik *Lux* eta *L'après-midi d'un foehn*

Eskuhartzaileak:

- Mickaël Vivier/ Artista plastikoa/ Irakaslea ESAPB eskolan
- Jean-Philippe Mercé/ Departamenduko pedagogia aholkularia arte plastikoetan eta arteen historian

Formakuntzaren helburuak:

Formakuntza honek irakasleak prestatu eta lagundu nahi ditu *Lux* eta *L'après-midi d'un foehn* ikuskizunak hartzen, praktikoki ekinez plastika eta kulturari.

EAC eskolaren 3 zutabeak berriz hartzeko, irakasleen etengabeko formakuntza ibilbidean, une hori honela pentsatu da:

- **Topaketa** bat artista plastiko baten, formatzaile baten eta hezkuntza profesionalen artean,
- **Jardute** aldi bat irakasleak hobe uler ditzan 'VOUIVRE' konpainiaren (*Lux* ikuskizuna) eta 'NON NOVA' konpainiaren (*L'après-midi d'un foehn*) arte unibertsoak eta jarraian ikasleekiko saio pedagogikoetan eman ditzan
- **Ezagutzen** partekatze bat, kontzeptu historikoek eta arte urraspideek ikasgelak ikusi ikuskizunari testuingurua eman diezaioten.

Formakuntzaren nondik norakoa:

- Harrera, formatzaileen eta testuinguruaren aurkezpena
- Formatzaileek pentsatu 2 gairen inguruko jardute lantegiak (2 azpitaldetan antolatuak. 2 lantegi horietan aldizka)
- Trukaketak eta berreraikitzea
- Kultura ekarpenak eta pedagogia testuinguruan kokatzea (ikaslearen Arte eta Kulturazko Heziketa Ibilbidea (PEAC))
- Formakuntzari buruzko ekarpena eta bilana

2022ko urtarrilaren 19an, asteazkenarekin

14:00etatik 17:00etara

Harri Xuri aretoan - (errepide nagusia - 64250 Luhuso)